



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Avda. Julián Gaiarre, 50-Bajo – 48004 Bilbao

www.eif-fvn.org

HAUTESKUNDEAK 2025 HAUTESKUNDE BATZORDEA 3. AKTA

Data: 2025eko martxoaren 18an

Hauteskunde Batzordea bildu ondoren, hau erabaki da:

1. Batzar Nagusia osatzen duten klubak behin-behineko aldarrikapenaren eta horien boto haztatuaren aurkako errekurtsio hau jaso da:

- Julio J. Lertxundiren errekurtsioa, 1060407 lizentzia zenbakia duena eta Teknikarien Estamentukoa.

Errekurtsio horri dagokionez, bertan bi gai adierazten dira:

- Erroldan honako hau sartzea: *“Hauteskunde Arautegiaren 20. artikuluko C puntua betetzen ez duten klub batzuk erroldan sartzea, bi denboraldietako batean ez dutelako inolako lizentziarik izan edo puntu horretan ezarritako gutxieneko lizentzietara iristen ez direlako”.*

- *“Club Natación Artística Sincro Meatzaldea erroldan agertu beharko lukeela, nahiz eta klub berria izan, klub hori Club Natación Meatzaldearen zatiketarik sortu da, eta, egiazta daitekeenez, kirolari guztiek parte hartu dute 23/24 denboraldian C.N. Meatzaldea gisa, eta 24/25 denboraldian izen berriarekin”* buruzko kontsiderazioa

Adierazitako errekurtsioan adierazitako lehenengo gaiari dagokionez, Hauteskunde Arautegiaren 20. artikuluko C puntuak adierazten du klubek honako baldintza hau bete beharko dutela: “Euskal Igeriketa Federazioaren lizentzia federatua duten 6 kirolari izatea, gutxienez, Euskadiko Igeriketa Federazioaren estatutuak 1. Artikuluan adierazitako diziplinetako batean, bai hauteskunde-denboraldian, bai aurre-aurreko denboraldian. Horrenbestez, Hauteskunde Batzorde honek aintzat hartzen du errekurtsio hau gai honi dagokionez, eta honako klub hauek kentzen ditu hauteskunde-erroldatik:

- Igeriketa Laudio: igeriketa modalitate bakarrean 7 lizentzia bakarrik izateagatik 23/24 denboraldian eta 5 24/25 denboraldian.

- C.N. Legazpi: igeriketa modalitate bakarrean 6 lizentzia bakarrik izateagatik 23/24 denboraldian eta 4 24/25 denboraldian.

Batzarra osatzen duten klubak behin-behineko aldarrikapenean adierazten diren gainerako klubek lehen adierazitako baldintza betetzen dute.

Adierazitako errekurtsioan adierazitako bigarren gaiari dagokionez, Hauteskunde Arautegiaren 20. artikuluko B puntuak adierazten du klubek baldintza hau bete beharko dutela: **“Euskadiko Igeriketa Federazioari atxikita egotea, gutxienez, hauteskunde denboraldian eta aurre-aurreko denboraldian. Klub bat, euskal kirol-elkarte bat edo kirol-**



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Avda. Julián Gaiarre, 50-Bajo – 48004 Bilbao

www.eif-fvn.org

sozietate anonimo bat Euskadiko Igeriketa Federazioari denboraldi jakin batean atxikita dagoela ulertuko da, betiere dagokion klub-lizentzia ordaindu badu". Horrenbestez, Hauteskunde Batzorde honek, Club Natación Artística Sincro Meatzaldea baldintza hori betetzen ez duenez, errekurtsogileak berak adierazten duen bezala, ez du errekurtsio hori aintzat hartzen gai horri dagokionez; gainera, baliabide hori aintzat hartzeak esan nahiko luke klub lizentzia bera bi klubetarako baliagarria izatea.

2. Euskadiko Igeriketa Federazioaren Batzarra osatzen duten klubuen zerrenda eta boto haztatua BEHIN BETIKO aldarrikatzea, III. ERANSKINEAN jasotakoaren arabera.

3. Euskadiko Igeriketa Federazioaren Batzar Nagusia osatzen duten klubuen behin betiko aldarrikapenari errekurtsioa aurkezteko epea ireki da. Epea 2025eko martxoaren 20an amaitzen da.

Bilbon, 2025eko martxoaren 18an

Hauteskunde Batzordea